

menzpreziorikan;
etziran batentzako
egin gauza denak,

ez dunari lagundu
beikio dubenak.

DAMA ETA OSIÑA.

Dama, etzana senti
osasanaz sendo,
bere aiskide batek
jarri zuben ondo;
eta adiskideari
nairik grazik eman,
edo ongarri zerbait
akordu eraman,
jachi zan baratzen
lorearen billa,
sorta bat zezan egin,
baitzeuzkan ta milla,
lotuta emateko
adiskideari;
eta an ederrenak
artzen zala ari,
osiñak errerikan
esku polit fiña,
esan zuben: ¡ai! zerk dit
eman neri miña?
belar charren bat dago
or, bai, da osiña,
sortu zubenak zori
gaiztoan egiña;
eta segiran zion

eranzun osiñak:
—bai, nik dakit ematen
eta kentzen miñak;
oroit zaitea nitzaz,
zenubentian miñ
nola zizuten nere
ur miñak on egiñ;
odolak itozera
ekarririk ala,
nere urak gantikan
sendatu ziñala;—
eta aretaz dama
jaikirik kontura,
esan zuben bedeinka
bedi zure ura.

Chartzat, mespreziatu
bear ezda ezer,
charrak izan lezake
ona zer edo zer;
mundu ontan bearrak
baikerare guzik,
etzuben Jaunak egiñ
bear etzan gauzik.

RAMON ARTOLA.